


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

LETREN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE LETRAS

GRADU AMAIERAKO LANA

Euskarara itzultako bestsellerrak:

***The New York Times Best Seller List* zerrendan oinarritutako
katalogoa eta azterketa (1990-2020)**

IKASLEA: Amaia Izkue Daroca

GRADUA: Itzulpengintza eta Interpretazioa

TUTOREA: Naroa Zubillaga Gomez

SAILA: Ingeles eta Aleman Filologia eta Itzulpengintza eta Interpretazioa

IKASTURTEA: 2020/21

LABURPENA

Hurrengo lanean azken 30 urteetan euskarara itzultitako bestsellerrak izango ditugu aztergai. Bestseller fenomenoak Amerikako Estatu Batuetan sortu zen arren, mundu osoan hedatu da jada gaur egun. Fenomeno nahiko berria dela kontuan izanik, informazio gutxi daukagu euskarara itzultitako bestsellerren inguruan, eta, horregatik, lan honen bitartez, aztertu nahi izan dugu zein den bestsellerren posizioa euskal itzulpenengintzaren baitan. Horretarako, guk sortutako katalogoan oinarritu gara, eta katalogo horrek justifikatuko ditu lan honen ondorioak.

Dena den, katalogoa sortu aurretik, oinarritzko kontzeptua argitu behar izan dugu: bestsellerra. Fenomeno horren sorrera azaltzeaz ez ezik, liburu horien inguruan sortzen diren oinarritzko zalantzak argitzen saiatu gara. Teorian eta sinpleki azalduta, bestsellerra merkatuan salmenta handia duen liburua izan arren, asko dira fenomeno horren inguruan sortzen diren zalantzak. Lehenengo atalean azaldu dugu zeren arabera lortzen duen liburu batek bestseller izendapena eta zer duten komunean kategoriatan horretako liburuek. Definizioaren atalarekin amaitzeko, bestsellerren kalitatearen auziari ere heldu diogu.

Katalogoa osatzen hasi aurretik, katalogo hori mugatuko duten parametroak zehaztu behar izan ditugu, eta, horretarako, funtsezkoa izan da euskal itzulpenengintzaren testuingurua ezagutzea. Azken urteetako euskal itzulpenengintzari buruzko datuei esker, erabaki dugu zeintzuek izan behar zuten gure katalogoaren mugak, 1990-2020 bitarteko haur eta gazte literatura, helduen literatura eta saiakera, hain zuzen ere.

Parametro horiek argi identifikatu ondoren, funtsezkoa izan da katalogoaren oinarria izango den zerrenda bat ezartzea, eta, horretarako, *The New York Times*en bestsellerren zerrenda aukeratu dugu. Erabaki horren azalpena metodologiako atalean bildu dugu. Atal horretan bertan eman dugu, halaber, katalogoa osatzeko jarraitu dugun prozesuaren berri.

Katalogoa osatu ondoren, euskarara itzultitako bestsellerren egoera aurkeztu dugu, betiere gure katalogoko datuen bidez justifikatu duguna. Zehazki jakin izan nahi dugu bestsellerren artean zein den gailentzen den generoa, zer idazle itzultzen den gehien eta nortzuk diren bestsellerrak euskarara ekartzen dituzten itzultzaile eta argitaletxeak. Jarraian datu horietatik atera ditugun ondorioak azaldu ditugu.

Lanaren azken atalean, eta aurretik jasotako datu guztiak kontuan hartuta, ondorio orokor batzuk azaltzen saiatu gara. Bestseller fenomenoak hainbat arazori egin behar die aurre gure literatur sistemaren baitan, besteak beste, arazo ekonomikoari zein irakurlearen

aurreiritziei. Nolanahi ere, badirudi fenomeno honek baduela nolabaiteko presentzia euskal literatur sisteman.

AURKIBIDEA

1.	SARRERA	5
2.	BESTSELLERRA	6
3.	AURREKARIAK	8
3.1.	1990-2020 BITARTEKO DATUAK	8
3.2.	GENERO LITERARIOA.....	10
4.	METODOLOGIA.....	12
5.	EMAITZAK.....	16
5.1.	ITZULPEN KOPURUAREN BILAKAERA KRONOLOGIAN.....	16
5.2.	GENERO LITERARIOA.....	18
5.3.	IDAZLEAK.....	19
5.4.	EUSKAL ITZULTZAILEAK.....	21
5.5.	EUSKAL ARGITALETXEAK	23
5.6.	KATALOGOTIK ATERATAKO ONDORIOAK	24
6.	ONDORIOAK	25
7.	BIBLIOGRAFIA	28
I.	ERANSKINA: EUSKARATUTAKO BESTELLERREN KATALOGOA	30

TAULEN AURKIBIDEA

1. Taula. Argitalpenen ehunekoa urteka (1976-2008) (Gaseni, 2009: 303)	9
2. Taula. Argitaratutako itzulpenen genero literarioa (Satrustegi, 2020: 152)	10
3. Taula. Itzultako bestsellerren jatorrizko idazleak	19
4. Taula. Bestsellerren itzultzaileak	21

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. Grafikoa. Argitalpenak urteka (2008-2018) (Satrustegi, 2020: 158).....	10
2. Grafikoa. Itzultako bestsellerren kopuruaren bilakaera kronologian	16
3. Grafikoa. Itzultako bestsellerren genero literarioa	18
4. Grafikoa. Bestsellerrak argitaratutako argitaletxeak	23

1. SARRERA

Egungo euskal itzulpengintzaren inguruan egiten diren azterketak areagotuz doaz, eta geroz eta zehatzago dakigu zer genero, idazle, itzultzaile edota argitaletxe gailentzen diren gaur egun gure literatur sisteman. Bide horretatik, gure helburua izan da euskal itzulpengintza beste ikuspuntu batetik aztertzea, eta ikustea zein den euskarara ekarritako bestsellerren posizioa itzulpengintzaren barne.

Euskal literatur sisteman hutsuneak pixkanaka betez doaz, esaterako, mundu mailako klasikoak eta zientzia-liburuak ditugu gaur egun Literatura Unibertsala eta ZIO bildumei esker. Horrez gain, azken urteetan komikiaren produkzioak ere gora egin du. Euskal literaturak nazioarteko modei jarraitzen diela eta beste hizkuntza batzuen parera jartzen ari dela dirudi; esaterako, mendebaldeko herrialdeetan feminismoari eta generoari lotutako saiakera ugari argitaratzen ari dira, eta euskal argitaletxeak ez dira atzean gelditu. Horregatik, interesgarria iruditu zaigu aztertzea mundu mailan horren pisu handia duen bestseller fenomeno nola islatzen ari den euskaraz. Bestseller horiek, noski, itzulpenaren bitartez heltzen dira gurera, baina, posible al da bestsellerraren fenomenoaz hitz egitea euskal produkzioaren testuinguruan? Iritsi al da fenomeno hori gure liburu-dendatarara? ¹

Euskal itzulpengintzak bi arazori egin behar die aurre, besteak beste. Alde batetik, euskara hizkuntza gutxitu den aldetik, hizkuntza bera da erronka. Bestalde, itzulpenaren aurkako aurreiritzien ondorioz, jende askok euskal itzulpena baztertu eta jatorrizko edo gaztelaniazko liburuaren aldeko hautua egiten du. Baina kasu honetan, bestsellerra hirugarren erronka bat izan zitekeela pentsatu dugu, asko baitira bestsellerren aurkako iritziak: erraza edo kalitate txarreko literatura dela, salmenta soilik helburu duena. Dena den, liburu-dendatan noizbehinka ikusten dugu salmenta handiko nobelaren bat euskaraz, izan *Harry Potter* zein *Neskamearen ipuina*. Horregatik guztiagatik, interesgarria iruditu zaigu aztertzea argitaletxeek euskarara ekarritako bestsellerren aldeko apustua egiten ote duten, eta, hala bada, euskarara ekarritako bestseller horien ezaugarriak zeintzuk diren ezagutzea.

Lan honen aurreneko atalean, beraz, argituko dugu zer den bestsellerra eta zeintzuk diren horren ezaugarriak. Bigarren atalean, azken hamarkadetako euskal itzulpengintzaren

¹ Badakigu euskal merkatuan jatorriz euskaraz idazten diren salmenta handiko liburuak egon badaudela. Hala ere, argi utzi nahi dugu hurrengo lanean nazioarteko adieran ulertu dugula bestseller terminoa, eta horregatik diogu liburu horiek itzulpenaren bitartez iristen direla gurera.

testuingurua azaltzen saiatuko gara. Gure katalogoa egiteko erabili dugun metodologia azalduko dugu hirugarren atalean, eta, jarraian, katalogotik ateratako emaitzak erakutsiko ditugu. Lanarekin amaitzeko, euskarara itzultako bestsellerren inguruko ondorio nagusiak azalduko ditugu azken atalean.

2. BESTSELLERRA

Bestseller: iz. Arrakasta eta salmenta handia izan duen liburua (Euskaltzaindiaren Hiztegia, 2021).

Asko dira bestsellerraren inguruan sortzen diren eztabaidak, eta, kasu askotan, adituak ere ez datoz bat. Genero literarioa al da? Aurreikusi al daiteke liburu batek izango duen arrakasta? Bestsellerra kalitate txarreko nobela al da? Terminoarekin ere desadostasun nabarmena ikus dezakegu: David Viñas Piquerrek «*best-seller*» erabiltzen du *El enigma best-seller. Fenómenos extraños en el campo literario* liburuan, Estelle Gaconek «*best seller*» *Literatura y mercado: el best seller en España* tesian, María Fresquetek «*best seller*» *Estudio sobre el género, las funciones y la calidad literaria del best seller* tesian eta Alan Sorensenek «*bestseller*» «*Bestseller Lists and Product Variety*» artikuluan. Gure kasuan, Euskaltzaindiaren Hiztegiaren izendapenari kasu egin eta «*bestseller*» terminoa erabiliko dugu.

Estelle Gaconek (2017) bere tesian azaltzen du AEBetan argitaratu zela liburu salduenen zerrenda bat lehenbizikoz, 1895ean, *The bookman* aldizkarian. Horren ondoren, beste egunkari eta aldizkari askok egin zuten beren zerrenda propioa argitaratzeko hautua. *The New York Times*ek, esaterako, 1931an argitaratu zuen lehenbizikoz AEBetako bestsellerren zerrenda. Dena den, batzuen ustez, bestsellerrak ez du zertan zerrenda batean agertu izendapen hori lortzeko, eta liburu batek salmenta kopuru bat igaro ondoren, bestseller bihurtzen da automatikoki. El Paisek 100.000 aletan jartzen du langa Espainiarako, baina herrialdearen arabera, muga hori desberdina izango da (Gacon, 2017:90).

David Viñas Piquerrek (2009) bestsellerrak sailkatzen ditu liburu batek denboran zehar merkatuan duen arrakastaren arabera. Horretan oinarrituta, *best-seller*, *steady-seller* eta *long-seller* etiketak proposatzen ditu:

una obra *best-seller* se mantendrá allí por un tiempo relativamente breve, [...]
una obra *steady-seller*, que ha dejado de estar entre los más vendidos, pero sigue

vendiéndose relativamente y llega a adquirir una cierta estabilidad en el éxito de ventas. Si esta estabilidad se mantiene durante mucho tiempo, durante siglos incluso, nos encontramos frente a *long-seller* (Viñas Piquer, 2009: 10).

Oinarrizko kontzeptu horiek argi utzi ondoren, generoaren gaiari helduko diogu. Gaconek zein Viñas Piquerrek ez dute baieztatzen bestsellerra genero literarioa denik, eta guri ere ez dagokigu hori zehaztea. Dena den, bestseller askok komunean dituzten ezaugarriak identifikatu dituzte biek. Viñas Piquerrek adierazten du bestseller gehin-gehienak nobelak direla, nahiz eta nobela ez diren liburuak ere bestseller izatera iris daitezkeen, noski (ibid.: 21).

Gacon haratago doa eta bestseller askok komunean dituzten ezaugarriak zehazten ditu. Aipatzen duen lehenengo ezaugarria liburu horien hibridotasuna da, hau da, gai edo genero desberdinak nahasten direla liburu bakar batean; esaterako, polizia-nobela, historikoa, erotikoa edota biografikoa. Izan liteke nahasketa horrek salmenta areagotzea, irakurle-gama zabalago batera egokitzen baita (Gacon, 2017: 105). Ezaugarri linguistikoei dagokionez, bestsellerrek kazetaritzan erabiltzen den estiloa imitatzen dutela dio Gaconek, hau da, lexikoa erraza eta teknizismorik gabekoa, esaldi eta paragrafo laburrak, eta esaldiaren ordena logikoa mantentzen da (ibid.: 108).

Azken horrek kalitatearen auzira garamatza; izan ere, idazle batzuek formula horiek aplikatzen dituzte beren liburuak ahalik eta gehien saldu daitezen, eta, ondorioz, estiloa bigarren maila batera igarotzen da. Viñas Piquerrek, dena den, aitortzen du zaila dela alde zurretik jakitea liburu bat bestseller izatera iris daitekeen ala ez. Izan ere, nahiz eta autore batzuek aurreko estrategiak erabiltzen dituzten beren liburuak ahal bezainbeste saltzeko, gerora ez dute inolako arrakastarik izanen. Bestalde, inolako estrategiarik gabe idazten diren liburu batzuek sekulako salmentak lortzen dituzte (Viñas Piquer, 2009: 12). Beraz, bestsellerraren fenomeno oso konplexua da, eta nahiz eta liburu batzuek bestsellerraren kanona jarraitu, arrakasta ez dago ziurtatuta.

Atal honekin amaitzeko, salmenta estrategien inguruan arituko gara. Viñas Piquerren arabera, bestsellerra beti marketineko estrategien eskutik doan arren, estrategia hori momentu desberdinetan aplika daiteke (ibid.: 17). Hau da, kasu batzuetan, editore edo argitaletxeek, liburu bat merkaturatzen den momentutik aurrera, ahalegin handia egiten dute liburu hori marketinaren bidez arrakastatsua izan dadin. Bestetan, liburu batek asko sal dezake alde zurretiko kanpaina hori gabe, baina liburu hori bestseller bihurtu

ondoren, estrategia horiek martxan jarriko dira liburuaren arrakasta hori are gehiago zukutzeko. Harry Potterren kasua izan zen hori; J. K. Rowlingen liburuak hasiera batean komunikabideetan entzute handirik izan ez zuen arren, irakurleek beren artean gomendatzen zutelako areagotu zen liburuaren salmenta. Bestseller bihurtu zen, eta, orduan bai, salmenta estrategiak jarri ziren martxan bilduma horretako gainerako liburuetarako (ibid.: 17).

Laburbilduz, liburu batek izango duen arrakasta aurreikusten zaila izan daitekeen arren, zenbait faktorek erraztu dezakete salmentek gora egitea. Liburua nobela hibridoa eta irakurterraza bada, eta salmenta estrategiak bere alde baditu, aukera gehiago izango ditu bestseller bihurtzeko.

3. AURREKARIAK

Lan hau ez da hutsetik sortu, eta, katalogoa sortzen hasi aurretik, funtsezkoa izan da aztertu nahi genituen datuei muga batzuk jartzea, bai horien denbora-tarteari, baita generoari dagokionez. Hain zuzen ere, Manu Lopez Gaseniren «Euskal itzulpenen inbentarioa eta azterketa (1976-2008)» (2009) eta Iñigo Satrustegi Andresen «Euskal itzulpenen azterketa kuantitatiboa eta inbentarioa 2008-2018» (2020) lanak izan ditugu abiapuntu euskal itzulpenaren testuingurua ezagutzeko. Bi artikulu horietatik ateratako datuek eta informazioak justifikatzen dute, neurri batean, hartu ditugun erabakiak; izan ere, horietatik lortutako informazioari esker erabaki dugu zeintzuk diren katalogoaren mugak.

3.1. 1990-2020 BITARTEKO DATUAK

Lehenik eta behin, kontuan izan dugu bestsellerra nahiko fenomeno berria dela, eta, horregatik, euskal literaturaren aro garaikidea hartu behar genuela kontuan. Torrealdaik, esaterako, euskal literaturaren sailkapen bat proposatu zuen *Euskal kultura gaur: liburuaren mundua* (1997) liburuan, zeinetan literatura hiru arotan banatu baitzuen. Sailkapen horretako azken aroa, hau da, aro garaikidea, 1976an hasten da, frankismoa amaitzean. Hala ere, kontuan izan behar dugu Torrealdairen lana 1997an argitaratu zela eta, gaur egun, azpi-sailkapen bat egin daitekeela aro handi horren barnean. Torrealdairen sailkapena 90. hamarkadan guztiz aproposa zen arren, Manu Lopez Gasenik gaur egungo egoerara hobe egokitzen den sailkapen bat proposatzen du.

Lopez Gasenik ere 1976. urtetik aurrerako sailkapena egin zuen, izan ere, «hirurogeita hamarreko hamarkadaren amaieran hasi zen euskarazko liburuak sistematikotasunez eta maiztasun handiagoz argitaratzen» (2009: 299). Beraz, Lopez Gasenik aro garaikidea 1976tik aurrera ere kokatzen duen arren, aro horren barne azpi-sailkapen bat proposatzen du. Hamarkada bakoitzeko kalkulatu du zein den itzulpenen ehunekoa euskal literaturaren produkzioaren totaletik. Narratiba, saiakera, poesia eta antzerkia hartzen ditu kontuan, baina ez haur eta gazte literatura² (HGLa hemendik aurrera). Hurrengo taulan ikus dezakegu sailkapen hori hamarkada bakoitzari dagokion itzulpenen ehunekoarekin batera.


URTEAK	ITZULPENEN EHUNEKOA
1976-1980	% 2,6
1981-1990	% 22,3
1991-2000	% 42,1
2000-2008	% 33

1. Taula. Argitalpenen ehunekoa urteka (1976-2008) (Gaseni, 2009: 303)

Taulan ikus daitekeenez, 1990. hamarkada izan zen itzulpen gehien argitaratu zen hamarkada. Itzulpen-ikasketak, EIZIERen sorrera, Literatura Unibertsala eta Pentsamenduaren Klasikoak bildumak urte horietan jarri ziren martxan, eta horrek guztiak bultzada handia eman zion itzulpenaren produkzioari (ibid.: 303). Ondorioz, erabaki dugu katalogoa 1990. urtetik aurrerako datuekin osatzea, aro horretatik izan baitzen bereziki nabarmena euskal itzulpenaren gorakada.

Lopez Gaseniren lanak 2008 urtera arteko datuak jasotzen dituen arren, Iñigo Satrustegik horren jarraipena burutu zuen «Euskal itzulpenen azterketa kuantitatiboa eta inbentarioa 2008-2018» artikuluan. Hurrengo grafikoan ikus dezakegu zenbat itzulpen argitaratu zen urteko 2008tik aurrera eta 2018ra arte, baita urte horietan zehar argitaratutako itzulpenen batez bestekoa ere. Kasu honetan, ez dugu ehunekorik Gaseniren lanarekin konparatu ahal izateko, baina ikus daiteke itzulpenak presentzia nabarmena izaten jarraitu duela azken bi hamarkadetan.

² Berez, HGLa narratibaren barruan kokatuko genuke, baina lan horretan, aurrerago ere aipatuko dugunez, Lopez Gasenik argi uzten du HGLa azterketatik kanpo utzi duela, eta «narratibaren» barne, helduei bideratutako narratiba hartzen duela soilik, ez haur eta gazteei bideratutakoa.



1. Grafikoa. Argitalpenak urteka (2008-2018) (Satrustegi, 2020: 158)

3.2. GENERO LITERARIOA

Katalogoa egiteko ezarri dugun bigarren parametroa generoa izan da, hau da, zehaztu dugu zer literatur genero hartuko dugun kontuan gure katalogoa egiteko. Horretarako, itzulpenen generoari buruzko datuak jasotzen dituzten lanak aztertu ditugu. Kasu honetan kontuan izan dugu Lopez Gasenik (2009) ez dituela HGLko datuak jaso: «bigarren baldintza, [...] haur literatura edo alderantzizko itzulpengintza, oraingoz inbentario horretatik kanpo uztea izan da. Egia da haur eta gazte literaturak berezko azterketa bat merezi izango lukeela [...]». Satrustegik (2020) berdin jokatzen du bere lanean. Hurrengo taulan ikus dezakegu Satrustegik kontuan hartzen dituen generoak eta bakoitzari dagokion ehunekoa (2020: 152). Horrez gain, Lopez Gasenik 2009an jasotako datuen ehunekoa ikus dezakegu ere eskuineko zutabearen, MLG siglen azpian.

GENERO LITERARIOA			
Generoa	Kopurua	%	MLG %
Narratiba	294	56,53	68
Saiakera	120	23,07	17
Poesia	64	12,31	8
Komikia	22	4,23	-
Antzerkia	19	3,65	7
Besteak	1	0,19	

2 Taula. Argitaratutako itzulpenen genero literarioa (Satrustegi, 2020: 152)

Datu horiek aztertu aurretik, azalpen txiki bat eman behar dugu Lopez Gasenik literatur generoak sailkatzeko eta izendatzeko erabiltzen duen moduaren inguruan: literatur sailkapen orokorraren arabera, HGLa narratibaren barne kokatuko litzatekeen arren, Lopez Gasenik narratiba terminoa erabiltzen duenean, helduen narratibari egiten dio erreferentzia soilik, hau da, ez du HGLa datu horien barne hartzen.

Datuen azterketarekin jarraituz, 2. taulan ikus dezakegunez, narratiba da gailentzen den generoa, nahiz eta 2009ko azterketarekin alderatuta, 12 puntu jaitsi dituen. Horren azpitik saiakera kokatzen da, zeinak narratibak ez bezala, igoera izan duen. Gainerako datuen ehunekoa nahiko txikia denez, erabaki dugu narratiba eta saiakera generoak aztertuko ditugula soilik gure katalogoa egiteko, HGLarekin batera.

Kontuan izan dugu Lopez Gasenik eta Satrustegik ez dituztela HGLko datuak jaso, baina genero horrek euskal literaturan duen indarragatik, datu zehatzak bilatzeari ekin genion. Xabier Eizagirre Gesalagak «Euskal liburugintza 2018» (2020) artikuluan honela dio: «gaiei dagokienez, haur eta gazteentzako liburua lehen tokira igo da [...] 742 titulurekin (ekoizpen osoaren % 34,7)» (2020: 101). Datu horrek 2018ko euskal liburugintzatik HGLaren ehunekoa zein izan zen adierazten du, eta itzulpenak ez ezik, sorburu hizkuntza euskara duen HGLa ere hartu du kontuan. Gainera, aurrerago HGLaren totaletik itzulpenaren ehunekoa ematen digu; hain zuzen, % 68,4 izan zen 2018an (ibid.: 114). Beraz, kontuan izanda HGLa dela euskal liburugintzan gailentzen den generoa, eta genero horretatik argitaratzen diren liburuen bi heren baino gehiago itzulpenak direla, erabaki dugu interesgarria dela gure katalogoaren barne genero hori ere kontuan hartzea.

HGLarekin jarraituz, Lopez Gasenik «Azken 25 urteotan euskaratutako Haur eta Gazte Literatura» (2001) artikuluan, HGLaren egoera aztertzen du 70eko hamarkadatik 90aren amaiera arte. HGLaren egoera 1986tik aurrera nabarmen aldatu zela azaltzen du; izan ere, 1975-85 urteak bitarte, oro har, eskubiderik gabeko obrak itzultzen ziren merkeagoak zirelako, nahiz eta noizbehinka liburu garaikideren bat ere itzultzen zen (Lopez Gaseni, 2001: 34). Beraz, hortik ondorioztatu dezakegu denbora tarte horretan oso bestseller gutxi itzuliko zirela, bestsellerren zerrendan agertzen diren liburuak garaikideak izan ohi direlako, salbuespenak salbuespen.

Bestalde, 1986-1996 bitarteko egoera soziolinguistiko eta kulturala nabarmen aldatu zen 1975-85arekin alderatuta. Alde batetik, HGLko itzulpenen produkzioak gora egin zuen; beste aldetik, jatorri hizkuntza nagusia gaztelania eta katalana izatetik ingeleza izatera

pasa zen (ibid.: 36). Horrek berresten du egokia dela 1990tik aurrerako datuak kontuan hartzea; izan ere, jatorri hizkuntzak nazioartekoagoak diren heinean, bestsellerren bat euskaraz aurkitzeko aukerak gora egiten du.

Ondorioz, erabaki dugu 1990-2020 bitarte argitaratutako helduen literatura (hemendik aurrera, HL), HGLa eta saiakera izango direla gure katalogorako kontuan hartuko ditugun parametroak.

4. METODOLOGIA

Lehenik eta behin, argi utzi behar dugu lan honen oinarria guk osatutako katalogoa izan dela, eta katalogo hori egiteko, The New York Timesek (hemendik aurrera, NYT) igandero argitaratzen duen bestsellerren zerrenda erabili dugu. Nolanahi den, zerrenda horren ezaugarriei heldu baino lehen, katalogoko parametroak definituko ditugu aurrena.

Denbora-tarteari dagokionez, aurretik ere esan dugu 1990-2020 urte bitartea hartu dugula abiapuntutzat. Horrez gain, azaldu dugu katalogoaren hasiera-urtea 1990ean kokatzeko arrazoia; hau da, euskal itzulpenen produkzioak gora egin zuela hamarkada horretan eta itzulpen-bildumak (Literatura Unibertsala eta ZIO, besteak beste) ere hamarkada horretan sortu zirela. Katalogoaren amaiera-urteari dagokionez, 2020an kokatu dugu. Dagoeneko 2021. urtea bizi dugun arren, kontuan hartu behar dugu itzulpena egiteko denbora behar dela, eta 2020ko abendutik aurrera bestseller izan den liburua, oro har, berriki idatzi dela. Ondorioz, 2021etik aurrera bestseller izan den liburu baten itzulpena argitaratuta egoteko probabilitatea oso txikia da, eta horregatik jarri dugu muga 2020an.

Generoari dagokionez ere zehaztaper batzuk egiteko beharra ikusi dugu. Lan honetan 3 genero desberdinu ditugu: HLa, HGLa eta saiakera. Generoaren sailkapena nahiko konplexua izan daiteke, eta, sailkapen klasikoaren arabera, literaturaren barne narratiba, poesia eta antzerki generoak sartzen dira. Dena den, guk hartzailearen arabera sailkapena egitea erabaki dugu, hau da, helduentzat idatzitako literatura eta haurrentzat idatzitakoa. Bestsellerren kasuan, HLa beti izango da narratiba, baina egokia iruditu zaigu hartzailean oinarritutako sailkapena mantentzea. Bestalde, nahiz eta badakigun saiakera oro har helduentzat idazten dela, genero horren berezitasunagatik, aparte aztertzea erabaki dugu. Gainera, NYTek ere zerrenda propioa dauka saiakerako liburuentzat (*non-fiction*). Saiakeraren barne giza- eta gizarte-zientzietako eta zientzietako liburuak sartzen dira.

Beraz, gure katalogoan 1990-2020 bitarteko datuak jaso ditugu eta HLa, HGLa eta saiakera izan dira kontuan hartu ditugun generoak.

Muga edo parametro horiek zehaztu ondoren, erabaki dugu gure katalogoak bestsellerren zerrenda bat izatea abiapuntutzat. Mundu osoko aldizkari eta egunkariak argitaratzen dituzte bestsellerren zerrendak, eta gu, zehazki, NYTeko zerrendan oinarritu gara. Jarraian emango ditugu erabaki horren aldeko arrazoiak.

Esan bezala, mundu mailako aldizkari eta egunkariak bestsellerren zerrendak argitaratzen dituzte, esaterako, Erresuma Batuko *The Sunday Times*ek edo Espainiako *El Paísek*. Amazonen eta la Casa del Libroko web-orrietan ere ikus ditzakegu beren bestsellerren zerrenden proposamenak. Dena den, Alan T. Sorensenek «Bestseller Lists and Product Variety» (2007) artikuluan Michael Kordaren aipu bati egiten dio erreferentzia, eta horren arabera, beste zerrenda garrantzitsu asko dauden arren, NYTeko bestsellerren zerrenda da mundu mailan eraginik handiena duena (Sorensen, 2007: 722). Horrez gain, zerrenda hori eskuragarri daukagu sarean, eta hori erraztasun handi bat da katalogoa egiteko.

NYTeko bestsellerren zerrenda igandero argitaratzen dute, eta jarraikortasun horrek ere nabarmen laguntzen digu azterketa hau egiteko. Zerrenda astero argitaratzea ere abantaila izan da; izan ere, urteko bestsellerren zerrenda bati erreparatuz gero, liburu salduenen kopurua askoz txikiagoa da asteroko zerrenda batekin alderatuz gero. Egunkariaren web-orrian zerrenda egiteko erabiltzen duten metodologia azaltzen dute:

Every week, thousands of diverse selling locations report their actual sales on hundreds of thousands of individual titles. The panel of reporting retailers is comprehensive and reflects sales in tens of thousands of stores of all sizes and demographics across the United States (The New York Times, 2021).

AEBetako milaka dendek ematen dituzten datu objektiboetan oinarritzen da egunkaria zerrenda hori egiteko, eta, beraz, NYTeko liburu salduenen inguruan jasotzen duen informazioa oso handia dela ondorioztatu dezakegu. Metodologiari buruzko artikulua horretan ere azaltzen da zerrenda bi asteko tartearekin argitaratzen dela; hau da, datuak 2021eko apirilaren 3ko astean jasotzen diren arren, datu horiei buruzko zerrenda apirilaren 17an argitaratuko da.

Azaldu dugunez, 1990etik aurreko datuak jaso ditugu gure katalogoan, eta hasiera batean NYTek soilik *fiction* eta *non-fiction* zerrendak argitaratzen zituen, *paperback*-ekin

batera. *Fiction* zerrenda HLari dagokio³, eta *non-fiction*, saiakerari. *Paperback* zerrendaren barne, oro har, *fiction* zerrenda nagusian agertzen diren liburuak aurkitzen ditugu, baina paper-azalduneko bertsioan. Horiek, oro har, oso liburu komertzialak izan ohi dira, eta, esaterako, liburuari buruzko filma egin bada, filmaren irudia aurkitzen dugu azalean. Horregatik, zerrenda nagusia aztertu dugu soilik. Dena den, urteek aurrera egin ahala, zerrenda berriak gehitu dituzte, besteak beste, *business books*, *advice books* eta *manga*. Ez ditugu horiek kontuan hartu, HGLko zerrenda izan ezik. Aurretik azaldu dugun bezala, HGLa izan da katalogoaren barne hartu dugun hirugarren generoa, eta, horregatik, genero horri dagokion zerrenda aztertu dugu. HGLko zerrenda 2000. urteko uztailen sortu zen arren, horren aldaera berriak agertu ziren geroago, esaterako, *picture books*, *children's series* eta *young adult*. Horiek guztiak aztertu ditugu.

NYT egunkari estatubatuarra izateak eta AEBetako datuak jasotzeak eragin zuzena izan du gure zerrendan. Lehenengo faktorea izan da aurkitu ditugun liburu gehienek jatorri hizkuntza ingelesa dela. Literatur sistema ahaltsua duten herrialdeek, oro har, gutxiago itzuli ohi dute, eta hori da AEBetako kasua. Izan ere, Lawrence Venuti teoriarik *The Translator's Invisibility* lanean (1995) herrialde anglosaxoietako itzulpen produkzioaren inguruko azken hamarkadetakako datuak jaso zituen. Horren arabera, 1990. hamarkadan, zehazki, Erresuma Batuko produkzioaren totaletik, itzulpenak soilik % 2,4 izan ziren, eta AEBetako produkzioaren totaletik, % 2,96 (Venuti, 1995: 12). Datu horietatik ondorioztatu dezakegu NYTeko zerrendan aurkituko ditugun liburu gehienek jatorri hizkuntza ingelesa izango dela. Badakigu ingelesa dela euskarara itzultako liburu askoren jatorri hizkuntza (% 35), eta, AEBak dira itzulpenen jatorri herrialde nagusia (% 13,4), Frantziaren atzetik (Satrustegi, 2020: 154). Beraz, zerrenda horietan agertuko diren liburu asko euskarara ekarritako liburuen profilarekin bat egiten du beren jatorri hizkuntzari eta herrialdeari dagokionez. Hala ere, bi iruzkin egingo ditugu jatorri hizkuntzaren inguruan. Alde batetik, NYTeko zerrendan AEBetako datuak jasotzen diren arren, ingelesa ez den beste hizkuntzako liburuak ere jasotzen dira noizbehinka, esaterako, Carlos Ruiz Zafonen gaztelaniazko *Lanbro arteko printzea* edo nederlanderatik ekarritako *Anne Franken egunkaria*. Bestalde, itzulpenak garrantzi handiagoa duen beste sistema edo herrialde bateko zerrenda bat aukeratu izan bagenu, euskarara ekarritako beste bestseller interesgarri batzuk aurkituko genituzke, beharbada.

³ 2000. urtera arte *fiction* zerrendaren barne HGLko liburuak ere jasotzen ziren; urte hartatik aurrera soilik HLa.

Nolanahi ere, mugak jarri behar ditugu, eta aipatutako arrazoiengatik, NYTeko zerrenda aukeratu dugu, nahiz eta horrek nolabait gure azterketa baldintzatuko duen.

Datuen bilketan izan ditugun arazoek ere eragina izan dute gure katalogoan. NYTeko zerrenda Interneten aurkitzen dugun arren, hutsuneak egon dira zeinbat kasutan. Zehazki, 2007ko urtarriletik 2008ko ekainera, eta 2012ko abendutik 2015eko abuztura bitarte HGLko zerrenda ez dugu online aurkitu. Horrek eragin zuzena izan du gure katalogoan; izan ere, ez baitugu HGLko daturik hainbat urtetan zehar. Hurrengo atalean ikusi eta aztertuko dugu hutsune horren eragina.

Horrez gain, HGLko bildumekin nola jokatu dugun azalduko dugu. Bildumak bitan banandu ditugu: jarraipenekoak eta jarraipenik gabekoak. Lehenengoak sagak lirateke, esaterako, *Harry Potter* edo *Gose jokoak*. Bildumako lehenengo liburua irakurri ezean, informazioa galtzen da, istorioa bakarra eta jarraipeneko delako. Bestalde, jarraipenik gabeko bilduma, adibidez, *Gizajo baten egunkaria* litzakete. Kasu horretan, pertsonaiak errepikatzen dira, baina liburuen artean ez dago jarraikortasunik (nahiz eta 1. liburua ez irakurri, gainerakoak irakur daitezke horiek ulertzeko arazorik gabe). Aurretik azaldu bezala, HGLari lotutako hainbat zerrenda gehitu zituen NYTek urteek aurrera egin ahala, eta horren adibide izan zen HGLko bildumen zerrenda. Bertan batera biltzen dira bi motatako liburuak, jarraipenekoak eta jarraipenik gabekoak. Normalean, bilduma baten hirugarren aletik aurrera zerrenda orokorretik bildumen zerrendan sartzen da⁴. Kasu horietan, hau da, bilduma osorik bestsellerra denean, bilduma horretako liburu guztiak sartu ditugu katalogoan. Alegia, *Gizajo baten egunkaria* bilduma bestsellerra denez, bilduma horretatik euskaratutako liburu guztiak jaso ditugu katalogoan.

Katalogoan hurrengo parametroak jaso ditugu: bestsellerraren jatorrizko izena, itzulpenaren izena, idazlea, itzultzailea, itzulpenaren argitaletxea, generoa, bestseller izan zen data (hau da, noiz agertu zen lehenbizikoz zerrendan), jatorrizkoaren argitaratze data eta itzulpenaren argitaratze data. HGLko bildumen kasuan, jarraipeneko edo jarraipenik gabeko bilduma den ere zehaztu dugu.

Katalogoa osatzea lan nekeza izan da: 30 urtetako datuak jaso ditugu, urtean 52 zerrenda argitaratu dira, eta zerrenda bakoitzeko 15 bestseller agertzen dira. Bestseller horiek


⁴ Katalogoan zehaztu dugu noiz agertzen diren lehenbizikoz liburuak NYTeko zerrendan. Kasu batzuetan ezin izan dugu data zehatza eman, bilduma osoa baita bestsellerren zerrendan sartzen dena, eta, beraz, ez dakigu bilduma horretako liburu bat konkretuki noiz izan zen bestseller.

banaka bilatu ditugu Nor da Nor datu basean eta Euskadiko Irakurketa Publikoko sarean, euskarara ekarri ote diren ikusteko.

5. EMAITZAK

Katalogoa osatu ondoren, lortutako datuak interpretatu ditugu. Osotara, euskarara ekarritako 139 bestseller identifikatu ditugu. Jarraian azalduko ditugu ateratako daturik esanguratsuenak.

5.1. ITZULPEN KOPURUAREN BILAKAERA KRONOLOGIAN



2. Grafikoa. Itzulitako bestsellerren kopuruaren bilakaera kronologian

Grafiko honetan euskal itzulpenen kopuruaren bilakaera ikus dezakegu 1970-2020 bitarte. Hasiera batean adierazi dugu 1990-2020 bitarteko datuak jaso ditugula, hau da, NYTeko zerrenda 1990tik aurrera hasi ginela aztertzen. Hala egin dugun arren, grafiko honetarako itzulpenaren argitalpen urtea izan dugu abiapuntutzat. Kasu batzuetan, liburu bat 1990etik aurrera NYTeko bestsellerren zerrendan agertzen den arren, liburua urte hori baino lehenago argitaratzea gerta liteke. Esaterako, *Printze txikia* 1970an itzuli zen arren, NYTeko bestsellerren zerrendan 2000. urtean sartu zen, eta, ondorioz, gure katalogoaren barne dago. Kasu horiek oso bakanak dira, bestsellerren zerrendan berriki argitaratutako liburuak agertu ohi baitira. Arrazoi horrengatik, grafiko honetan 1970-2020ko datuak jaso ditugu.

Grafiko hau aztertu aurretik, kontuan izan behar dugu NYTeko zerrendan egon diren gorabeherak. Esaterako, haurren zerrenda bitan desagertzen da Internetetik: 2007ko urtarrietik 2008ko ekaina arte eta 2012ko abendutik 2015eko abuztua arte. Ezin izan

ditugu datu horiek berreskuratu, eta horrek eragin zuzena dauka grafiko honetan, HGLa baita gehien itzultzen den generoa. Zerrenda hori gabe nabarmen jaisten da euskaratutako bestsellerren kopurua.

2000. urtetik aurrera grafikoak goranzko joera hartzen duela ikus dezakegu. Horren arrazoia da 2000. urteko uztailetik aurrera NYTek *children's best seller* zerrenda sortu zuela. Horrek, grafikoan ikus dezakegunez, eragin zuzena izan zuen euskarara itzulitako bestsellerren kopuruarekin. Horren aurretik HGLa zerrenda orokorraren barne zegoen arren, badirudi HLa askoz gehiago saltzen zela, HGLak oso presentzia txikia baitzuen (1990-2000 bitarte euskarara itzulitako HGLko 4 bestseller agertu ziren zerrendan; horietako 3 Harry Potter bildumakoak).


Nolanahi ere, goranzko joera hori oso gorabeheratsua da, eta gorakada nabarmen baten ondoren jaitsiera argi bat gertatu ohi da, 2002an eta 2005ean ikus dezakegun bezala. 2007tik aurrera, gutxieneko bestseller kopuru handi samar bat itzuli da urtero-urtero (2018ko jaitsiera salbu). Hala, 2012a izan zen bestseller itzulpen gehien argitaratu zen urtea, 14 itzulpenekin, hain zuzen ere. Aurrekarien atalean aurkitzen dugun 1. 1. Grafikoa. Argitalpenak urteka (2008-2018) (Satrustegi, 2020: 158) aztertzen badugu, ikusiko dugu urte hartako itzulpen totalaren kopurua ere bataz bestekotik gora egon zela.

Aurretik azaldu bezala, kontuz azertu behar dugu grafikoa, 2007-2008 eta 2013-2015 bitarte HGLko zerrendak huts egin zuelako. Hori izan liteke 2012tik aurrerako jaitsiera azaltzeko arrazoi posible bat. Dena den, Satrustegiren lanean ere ikusten dugu 2013an egon zela jaitsiera itzulpenen kopuruan, eta, bere iritziz, «krisiaren eraginez, beharbada, 2013an beherakada nabaria izan zen» (Satrustegi, 2020: 158). Beraz, zerrendaren hutsuneaz ez ezik, izan liteke krisi ekonomikoak ere eragina izatea 2013ko beherakadan.

2018an beste jaitsiera bat egon zen arren, badirudi bestsellerren itzulpenen produkzioa XX. mendearen amaieran baino nabarmen altuagoa dela azken hamarkadan, oro har. Esan daiteke 2006tik aurrera egonkortzen dela grafikoa, eta urte horretatik aurrera urtero argitaratu den bestsellerren batez besteko kopurua 7,8 da. Satrustegiren datuen arabera, 46 izan zen itzulpenen bataz bestekoa 2008-2018 bitarte, baina analisi horretan ez zuen HGLa kontuan hartu, eta beraz, ez du zentzurik gure datuak horiekin alderatzea.

5.2. GENERO LITERARIOA

Metodologian jada azaldu dugu zaila dela testu motak sailkatzea. Gure lanean ere zailtasunak izan ditugu kategoria desberdinak zehazteko, baina gure hautua izan da HLa, saiakera eta HGLa banantzea; alegia, hartzailean oinarritutako banaketa egin dugu. Hurrengo grafikoan ikus daiteke euskarara itzulitako bestsellerren ehunekoa generoka.



3. Grafikoa. Itzulitako bestsellerren genero literarioa

Argi ikus dezakegu HGLa dela gailentzen den generoa, % 79rekin. Hau da, HLa halako bost eta saiakera halako hamasei inguru da HGLa. Are gehiago, kontuan hartu behar dugu 2000. urtera arte ez zela *children's best sellers* zerrenda sortu, eta hurrengo urteetan datu-hutsuneak ere egon zirela. Urte horietako informazioa izango bagenu, litekeena da HGLaren ehunekoa are altuagoa izatea.

Aurrekarien atalean aurkitzen dugun **¡Error! No se encuentra el origen de la referencia.** ikus dezakegunaren arabera, HLa produkzioaren % 68 izan zen, eta saiakera % 17, beraz, agerikoa da HLa gehiago itzultzen dela saiakera baino. Bestsellerren itzulpenetan antzeko joera ikusten dugu. Bestalde, Satrustegiren datuetan ikus dezakegu bi genero horien arteko aldea gero eta txikiagoa dela, zehazki, HLa itzulpenen batez bestekoa % 56,53 izan zen, eta, saiakera, % 23,07 (2. taula). Kontuan izan behar dugu azterketa horretan ez zirela HGLko datuak bildu eta, arrazoi horrengatik, ez du zentzu handirik Gaseniren eta Satrustegiren emaitzak gure datuekin konparatzea.

Gure datuek, beraz, HGLaren nagusitasuna berresten dute. Horren arrazoia zuzenki dago lotuta HGLaren generoaren ezaugarriekin. Izan ere, haur eta gazteei bideratutako generoa izanik, bi sistemarekin du lotura HGLak, literatur sistemarekin eta hezkuntza

sistemarekin, hain zuzen ere. HGLak zuzeneko lotura du haur eta gazteen alfabetazioarekin, eta, beraz, hezkuntza sistemak berariaz bultzatzen duen generoa denez, salmentak gora egiten du. Jatorriz euskaraz idatzitako HGLak ez ezik, genero horren itzulpenak ere gora egiten du, bestsellerren itzulpena barne. Horrek ez du esan nahi haur eta gazteek nahitaez helduek baino gehiago irakurtzen dutenik, baina hezkuntza sistemaren laguntzari esker, HGLko liburu gehiago saltzen dira. Gazteek, hezkuntza sistemaren bultzadarik gabe, helduaroan irakurtzen jarraitzen ote duten ezagutzea interesgarria litzateke, baina hori lan honen mugetatik kanpo dago. Kontua da, hemen, bestsellerraren itzulpenaren generoari erreparatzen ari garen honetan, generoaren beraren kokapenak eta ezaugarriek azaltzen dutela HGLa izatea generoetan nagusiena.

5.3. IDAZLEAK

Aztertu ditugun datuen arabera, 61 idazleri itzuli zaio gutxienez liburu bat euskarara. Jarraian ikus dezakegun taulan soilik bi liburu edo gehiago itzuli zaien autoreen izenak jaso ditugu, beren herrialdeekin batera (21 idazle osotara).

Idazleak	Liburu kop.	Idazleak	Liburu kop.
Barbara Park (AEB)	18	Suzanne Collins (AEB)	3
Jeff Kinney (AEB)	14	Aprilynne Pike (AEB)	2
J.K. Rowling (EB)	8	Georgia Byng (EB)	2
Megan McDonald (AEB)	8	Ian Falconer (AEB)	2
Rick Riordan (AEB)	8	John Green (AEB)	2
Antoine de Saint-Exupéry (FR)	4	Khaled Hosseini (AFG ⁵)	2
Eric Carle (AEB)	4	L. Frank Baum (AEB)	2
Cornelia Funke (DE)	3	Neil Gaiman (Err. Bat.)	2
Elena Ferrante (IT)	3	Oliver Jeffers (Australia)	2
Hervé Tullet (FR)	3	Toni Morrison (AEB)	2
Lewis Carroll (Err. Bat.)	3		

3. Taula. Itzulitako bestsellerren jatorrizko idazleak

⁵ Khaled Hosseini sortzez afganiarra den arren, ingelesez idazten du; beraz, jatorri hizkuntza ingelesa duten liburuen artean kokatzen dira idazle horrenak.

Aurretik azaldu dugun bezala, NYT zerrenda estatubatuarra da eta Estatu Batuetako liburu-denden salmentako datuen arabera osatzen da. AEBetako literatur sistema hegemonikoa dela kontuan izanik, badakigu hainbat eta hainbat kultur sistematako lanak kanpoan geratzen direla. Goiko zerrendako 21 idazleetatik, 11 dira estatubatuarrek, hau da, erdia baino gehiago. Horrez gain, Erresuma Batuko 4 idazle ditugu, Frantziako 2, Alemaniako 1, Italiako 1, Afganistango 1 eta Australiako 1. Zerrenda honetan guztiak jaso ez ditugun arren, baditugu beste herrialde batzuetako idazleak, hala nola Anne Frank nederlandarra, Paulo Coelho brasildarra, Chimamanda Ngozi Adichie nigeriarra, Carlos Ruiz Zafón espainola... Beraz, jatorri anglosaxoieko autoreak gailentzen diren arren, jatorri askotako bestsellerrak dauzkagu euskaraz. Hizkuntzari dagokionez, gehien itzuli diren 21 idazle hautetatik, 17k idazten dute ingelesez, hau da, % 80,9k.

Taulan agertzen diren idazlerik oparoenak bildumak idazten dituzten autoreak dauzkagu. Barbara Park, Jeff Kinney eta Megan McDonaldek jarraipenik gabeko liburu bildumak idatzi dituzte; J.K. Rowlingek eta Rick Riordanek, aldiz, jarraipeneko bildumak (azken horren bi bilduma itzuli dira euskarara).

Bestalde, Antoine de Saint-Exupéry-ren *Le Petit Prince* lau aldiz itzuli da, beraz, bere lau euskal itzulpen dauzkagun arren, guztiak liburu berberarenak dira. Berdin gertatzen da Eric Carlen *The very hungry Caterpillar* (liburu beraren 3 itzulpen) eta Lewis Carrollen *Alice's adventures in Wonderland* (liburu beraren 3 itzulpen).

Zerrenda honetan, orokorrean, HGLa idazten duten autoreak dauzkagu, genero hori baita gehien itzultzen dena. Lau liburutik gora itzuli zaizkien autore guztiek HGLa idazten dute, Elena Ferrantek izan ezik. Aurretik azaldu dugun bezala, literatur zein hezkuntza sistemak irakurketa sustatu eta salmentek gora egitea eragiten dute, eta horrek justifikatzen du, neurri handi batean, HGLaren eta genero hori idazten duten autoreen nagusitasuna.

Gure datuak Satrustegik emandako datu orokorrekin alderatzen baditugu, ikus dezakegu oso autore gutxi daudela komunean; hau da, euskarara gehien ekartzen diren egileetatik soilik Ferrante eta Némirovsky aurkitzen ditugu gure katalogoan (Satrustegi, 2020: 157). Alde horretatik, esan dezakegu gure datuak ez datozela datu orokorrekin bat eta bestsellerraren itzulpenak merezi duela berariaz aztertzea.

5.4. EUSKAL ITZULTZAILEAK

Hurrengo taulan bestseller gehien itzuli dituzten euskal itzultzaileen zerrenda ikus daiteke. Taulan soilik 2 bestseller baino gehiago euskaratu dituzten itzultzaileak jaso ditugu, nahiz eta osotara 69 itzultzaile agertzen diren gure katalogoan.

Itzultzailea	Itzulpen kop.	Itzultzailea	Itzulpen kop.
Ametz Santxez Munain	19	Xabier Olarra	3
Miren Arratibel	12	Aritz Branton de Langlois	2
Koldo Biguri	11	Eva Linazasoro	2
Koro Navarro	10	Garazi Arrula	2
Iñaki Mendiguren	7	Irene Aldasoro	2
Itziar Zabala	4	Jesus Mari Lasa	2
Manu López Gaseni	4	Josune Zuzuarregi	2
Ane Erroteta	3	Mari Eli Ituarte	2
Aztiri itzulpen zerbitzuak	3	Usoa Wyssenbach	2
Fernando Rey	3		

4. Taula. Bestsellerren itzultzaileak

Noizbehinka liburuak bi pertsona edo gehiagoren artean itzuli dira. Kasu horietan erabaki dugu banaka aztertzea itzultzaile bakoitzak zenbat itzuli duen (nahiz eta beste lankideren batekin itzuli duen). Esaterako, Rick Riordan idazlearen *Labirintoko borroka* Mari Eli Ituarte eta Itziar Zabalak batera itzuli zuten arren, banaka aztertu ditugu itzultzaileak. Elkarlanean itzultzearen fenomenoak interesgarria izan daitekeen arren, gure zerrendan jaso ditugun 139 liburuetatik soilik 4 idatzi dira itzultzaile bat baino gehiagoren artean, eta beraz, ez dugu gai horretan sakonduko.

Bi bestseller baino gehiago itzuli dituzten itzultzaileak 19 dira osotara, eta horietatik oparoenak bildumak itzuli dituzte. Esaterako, Amets Santxezek *Junie B. Jones* bilduma euskaratu du, Miren Arratibelek *Gizajo baten egunkaria*, Koldo Bigurik *Judy Moody* eta *Hegoak* bildumak, Koro Navarrok *Percy Jackson*, *Kanetarren kronikak* eta *Gose Jokoak* bildumak eta Iñaki Mendigurenek *Harry Potter*, guztiak ere HGLko bildumak.

Gure katalogoko datuetatik ere ondorioztatu dezakegu, oro har, bilduma bat itzultzen denean itzultzaile bera arduratzen dela bilduma horretako liburuen itzulpenaz, izan jarraipeneko edo jarraipenik gabekoa. Salbuespenak ere badaude, esaterako, *Gizajo*

baten egunkaria bildumatik 12 liburu ekarri dira euskarara: Miren Arratibelek 9 ekarri ditu; Aritz Branton de Langloisek, 2; eta Antton Olanok, bakarra. Beraz, salbuespen horiek kenduta, bilduma baten itzulpena itzultzaile bakar bati esleitu ohi zaiola ondoriozta dezakegu.

Idazle batzuek bildumarik ez idatzi arren, beren hainbat liburu bestseller izan dira. Aztertu nahi izan dugu ea idazle horiek itzultzaile bat «esleitura» ote duten. Azterketa honetako datuen arabera, denetarik ikusi dugu. Esaterako, Cornelia Funke idazlearen 3 bestseller itzuli dira, eta bakoitza itzultzaile batek euskaratu du. J.K. Rowlingen kasuan, *Harry Potter* bilduma Xabier Mendigurenek ekarri zuen arren, Estibaliz Lizaso arduratu zen *Eserleku hutsaren* itzulpenaz. Bestalde, Oliver Jeffers-en bi bestsellerrak Garazi Arrulak itzuli ditu, John Greenen beste biak Usoa Wyssenbachek eta Khaled Hosseinirenak Josune Zuzuarregik. Beraz, kasu batzuetan argitaletxeek erabakitzen dute itzultzaile bera aukeratzea idazle baten itzulpenak egiteko, nahiz eta idazle horren liburu horiek bilduma batekoak ez izan.


Literatur generoari dagokionez, badirudi itzultzaile batzuek badutela genero bereko itzulpenak egiteko joera nabarmenagoa besteek baino, eta hori bereziki HGLan nabari da. Horren adibide gisa, liburu bat baino gehiago itzuli duten itzultzaileen artean, Amets Santxez Munain, Ane Erroteta, Garazi Arrula, Itziar Zabala, Koldo Biguri, Koro Navarro eta Manu López Gasenik HGLa itzuli dute soilik, gure katalogoko datuen arabera. Dena den, badakigu idazle horiek gure katalogoan agertzen ez diren beste generoetako liburuak ere idatzi eta itzuli dituztela, baina kasu honetan, gure datuetara mugatuko gara. Horrez gain, eta bildumak itzuli dituzten itzultzaileak kontuan hartu gabe, Irene Aldasorok eta Xabier Olarrak itzuli dute liburu bat baino gehiago, eta biek itzuli dute narratiba zein saiakera.

Nabarmenezkoa da ez dela kasu guztietan itzultzailearen izena ematen. Esaterako, Aztiri itzulpen zerbitzuak Hervé Tullet-en 3 liburu itzuli ditu, eta Chimamanda Ngozi Adichieren *Guztiok izan beharko genuke feminista* AEK-ko Kulturgintzak. Kasu horietan, ez dakigu nork egin duen itzulpena.

Satrustegik azken urteetako itzultzaile oparoenen zerrenda jaso zuen (ibid.: 159), eta gure emaitzekin alderatzen baditugu, hainbat itzultzaile aurkitzen ditugu komunean, besteak beste, Josu Zabaleta, Koro Navarro eta Xabier Olarra. Beraz, itzultzaileen kasuan, bai, aurkitzen dugu gure katalogoaren eta datu orokorren arteko antzekotasuna.

5.5. EUSKAL ARGITALETXEAK

Hurrengo taulan bestseller bat baino gehiago argitaratu duten argitaletxeen grafikoa jaso dugu.



4. Grafikoa. Bestsellerrak argitaratutako argitaletxeak

Osozara 39 argitaletxe-konbinazio dauden arren, grafikoa soilik 21 jaso ditugu; bestseller bat baino gehiago argitaratu dituztenak, hain zuzen ere. Argitaletxeak, berez, gutxiago dira, baina kasu askotan argitaletxeek elkarrekin argitaratzen dituzte liburuak. Kasu horretan, itzultzaileenean ez bezala, interesgarria iruditu zaigu argitaletxe horiek elkarrekin aztertzea, askotan gertatzen den fenomeno bat. Aurrerago sakonduko dugu gai horretan.

Bestseller gehien argitaratu dituzten argitaletxeak Alberdania (21), Gero-Mensajero (20) eta Bruño (19) dira. Horien atzetik Elkarlanean, Salamandra (7) eta Elkar (7) dauzkagu. Bost argitaletxe horietatik, lauk bildumak argitaratu dituzte, eta horregatik kokatzen dira zerrendako buruan. Elkar da argitaletxe oparoenen artean bildumarik argitaratu ez duen bakarra. Dena den, Alberdaniak *Gizajo baten egunkaria* bilduma argitaratu duen arren, bilduma horretakoak ez diren beste 8 bestseller argitaratu ditu, Elkar eta Ereinekin batera argitaratu dituen liburuak kontuan hartu gabe. Beraz, lortu ditugun datuen arabera, Alberdania da bestseller gehien euskaratzen dituen argitaletxea.

Aurretik azaldu bezala, argitaletxe-konbinazioak gertatzen dira liburu batzuk argitaratzeko. Horren adibide dira Alberdania eta Erein, 4 itzulpen argitaratu baitituzte batera, «Batera Saila» izeneko bildumaren barne (osotara elkarrekin 9 liburu argitaratu dituzten arren, gure katalogoan 4 agertzen dira soilik). Elkarlanean argitaratzeko arrazoiak desberdinak izan daitezke; esaterako, ekonomikoak, era horretan produkzioaren

kostua murrizten delako bi argitaletxeren artean. Bestalde, «Literatura Unibertsala» bilduman, argitaletxe bikoteak ezarri dira itzulpenak argitaratzeko; esaterako, Toni Morrisonen *Maitea Alberdaniak* eta Elkarrek itzuli zuten batera.

Bestsellerren euskal itzulpenak argitaratzen dituzten argitaletxe guztiak ez dira Euskal Herrikoak. Horren adibide ditugu Vicens Vives argitaletxea, Bruño, El Andén, Salamandra, Kókinos... Gasenik fenomeno horren berri ematen du bere lanean: «Espainiako enpresen ordezkartzek beren esku dituzten obrak euskaratu dituzte, arrazoi ekonomikoengatik (eskubideak berriro ez ordaintzea, eta arrakasta frogatu duten obrak izaten dira)» (Gaseni, 2001: 36). Beraz, badirudi errentagarritasun ekonomikoa dela Espainia mailako argitaletxeek bestsellerrak euskarara itzultzearen arrazoia, bereziki HGLaren kasuan. Horren adibide izan daiteke *Harry Potter* bildumaren euskarazko itzulpena, Salamandrak eta Elkarrek batera argitaratu baitzuten. Hau da, Salamandra argitaletxeak erosi zituen Harry Potterren liburuak itzultzeko eskubideak, bai gaztelaniara bai espainiar estatuko beste hizkuntzetara. Horrela, koofizialak diren beste hizkuntzetara itzulita, etekina lortzen jarraitzen du Salamandrak.

Argitaletxe batek bilduma bateko liburu bat itzultzeko hautua egiten duenean, oro har, bilduma osorik itzultzen saiatzen da jarraipena duten liburuen kasuan. Jarraipenik gabeko bildumetan ere, liburu bat baino gehiago itzuli ohi da. Dena den, kasuren batean jarraipeneko bildumak erdizka geratu dira, esaterako, Cornelia Funkeren *Tintenherz* bilduma, Christopher Paoliniren *Eragon* eta Aprilynne Piken *Wings*. Hipotesietako batzuk izan litezke liburuak ez duela espero bezainbeste saldu edo diru falta.

Atal honi «Argitaletxeak» deitu diogun arren, aztertu ditugun bestsellerrak argitaratzeaz arduratu direnak ez dira beti argitaletxe pribatuak izan. Kasu batzuetan, erakunde publiko zein pribatuek ere argitaratzen dituzte itzulpenak. Esaterako, EHUK ZIO bildumaren barne bi itzulpen argitaratu ditu; Elhuyarrek, Errekaldeko Lagun Arte Kultur Taldea erakundeak, Ikas-ek eta Hik Hasik, bana.

5.6. KATALOGOTIK ATERATAKO ONDORIOAK

Jarraian aipatuko ditugun ondorioak gure datuetatik ondorioztatu ditugunak dira, eta argitu nahi dugu ondorio horiek ez dutela zertan bat etorri euskarara ekarritako itzulpenen datu orokorrekin. Esaterako, esaten badugu ingelesa dela jatorri hizkuntza nagusia, gure azterketako datuez ari gara hitz egiten.

Lehenik eta behin, eta bestsellerra denboran zehar kokatzen badugu, badirudi 2006tik aurrera nolabaiteko egonkortasuna lortu duela euskal itzulpenaren barne, eta urtero ekartzen dela euskarara AEBetan gehien saldu den libururen bat; zehazki, 7,8 liburu urteko, batez beste. Euskal itzulpengintzaren inguruko datuei erreparatzen badiegu, HGLa da gehien itzultzen den generoa, eta, kasu honetan, datuek erakutsi digute euskarara ekartzen diren bestsellerretan ere HGLa dela genero nagusia. HGLko liburu gehienak bilduma batekoak izan ohi dira, eta, kasu gehienetan, bildumak osorik ekartzen dira euskarara.

Azken datu horri lotuta, bildumak euskaratzen dituzten itzultzaileak aurkitzen ditugu itzultzaile oparoenen zerrendako goikaldean. Berdin gertatzen da argitaletxeekin; izan ere, bestseller gehien argitaratzen dituzten argitaletxeek, bildumak itzultzeko hautua egin ohi dute.

6. ONDORIOAK

Lan honen sarreran adierazi dugu bestsellerren euskal itzulpenak hainbat erronkei egin behar diela aurre, eta, zehazki, euskararen egoera, itzulpengintzaren prestigioa eta bestsellerraren aurkako aurreiritziak nabarmendu ditugu. Jarraian saiatuko gara erronka horien inguruko ohar batzuk egiten.

Lehenik eta behin, hizkuntza beraren auziari lotuta, eta euskara hizkuntza gutxitua dela kontuan izanda, ohikoa da beste hizkuntza gutxitu batzuetako literatura ekarri nahi izatea. Torreladaik (1997) horren inguruan galdetu zien euskal argitaletxeei, eta honakoa erantzun zuten Ibaizabal eta Pamiela argitaletxeek:

Ibaizabal: «Interesgarria litzateke, bestalde, beste hizkuntza gutxituetako lanak gureganatzen joatea, esaterako katalanetik nahiz galizieratik» (Torrealdai, 1997: 209).

Pamiela: «lehentasunezkoa irizten diogu hizkuntza ez hain ezagunetako beste literaturetako testuak euskaratzeari; beraien kultura hurbiltzeko aukera emango digu, gainera. Egiteko dagoen guztiarekin, ez dirudi Benet, Garcia Marquez edo Quevedo, eta are gutxiago Cela eta horrelako salmenta handikoak, itzultzeko premia dagoenik» (ibid.: 209).

Kontuan izan behar dugu aipu horiek 1997koak direla eta, geroztik, nabarmen aldatu dela egoera. Argitaletxeen aipu horiekin bat, 2000. urtera arte, ez dugu inolako joerarik ikusten

bestsellerren itzulpenean, eta askoz jota bi bestseller itzultzen ziren urteko. Horregatik pentsa dezakegu argialetxe gehienek antzeko iritzia zutela salmenta handiko liburuekiko. Hala ere, bestsellerrak itzultzeko joera pixkanaka aldatuz joan da, eta badirudi 2006. urtean egoera egonkortsu zela, orduetik 7,8 bestseller itzultzen baitira urtean batez beste. Pamielako editoreek 1997an salmenta handiko liburuekiko interesik ez zuten arren, 2007az geroztik 5 bestseller ekarri dituzte euskarara. Esan beharra dago horiek guztiak HGLkoak direla eta, ondorioz, izan liteke helduentzako bestsellerrak oraindik ere itzuli nahi ez izatea.

Bigarrenik, itzulpenaren aurkako aurreiritziak eta horren prestigioa erronka bat dela adierazi dugu. Aurreiritzi horien ondorioz, itzultzailearen figura ezkutuan geratzen da askotan, eta pentsa genezake bestsellerrak idazten dituzten idazle ezagunek are gehiago itzaliko zutela itzultzailearen marka. *Gose jokoak*, *Harry Potter*, *Jende Normala* edo *Auschwitzeko tatuatzailea* liburuen azalak bilatu ondoren, ez dugu itzultzaileen izena ikusi. Aitzitik, komunikabideetan euskaratutako bestsellerren kritikak argitaratu direnean, itzultzaileen izena aitortzen da maiz:

Gose Jokoak, Diario de Noticiasen: «Hori guztia garden eta fidelki hauteman dezakete irakurleek Koro Navarrok euskaratutako nobelan.» (Imma Errea, 2009).

Eserleku hutsa, Berrian: «Irailaren 27 hartan ingelesez argitaratu zutenetik igaro den denbora laburrean euskaratu behar izan du Estibaliz Lizasok —Xabier Olarraren laguntzarekin— Eserleku hutsa» (Mikel Lizarralde, 2012).

Jende Normala, Argian: «Euskarara bikain ekarria Irene Aldasororen luman» (Ainhoa Aldazabal, 2021).

Itzultzaileen izenaz gain, itzulpenaren aldeko oniritzia ere adierazten dute kritikariek. Horrelakoek itzultzailearen presentzia nabarmentzeaz ez ezik, itzulpena normalizatzen ere laguntzen dute. Normalizazio prozesuaren barne ere garrantzitsua da ezagutzea nolakoa den liburu horien harrera; hau da, bestsellerren itzulpenak saltzen al diren, irakurtzen al diren, eta zein den irakurleen iritzia liburu horiekiko. Galdera horiei erantzuna emateko Alberdania argialetxearekin kontaktuan jartzen saiatu ginen arren, ez genuen garaiz erantzunik jaso. Nolanahi ere, interesgarria litzateke euskarara ekarritako bestsellerren harrera sakonago aztertzea etorkizunean.

Amaitzeko, euskaratutako bestsellerren auziari helduko diogu, hori baita lan honen aztergai nagusia. Azaldu dugu bestsellerrak euskarara ekartzearen aurkako arrazoiak egon daitezkeela. Lehenik eta behin, aurreiritziak oraindik ez dira desagertu, eta irakurle askok erabakitzen dute liburuak gaztelaniaz irakurtzea, euskal itzulpenak ulertzen zailak omen direlako. Horrez gain, irakurle askok bestsellerren aurkako aurreiritziak ere badituzte, eta kalitate txarreko liburuak direlakoan baztertzen dituzte. Arrazoi ekonomikoa ere izan daiteke oztopo bat bestsellerrak euskarara ekartzeko; izan ere, pentsa liteke J. K. Rowlingen liburuen egile-eskubideak hizkuntza gutxitu batean idatzitako liburu baten eskubideak baino askoz garestiagoak izango direla. Arazoak arazo, argitaletxeek estrategiak bilatzen dituzte, eta hortik sortu da, esaterako, Batera Saila bilduma.

Orain arte, klasikoen eta bestelako literatura kanonikoaren itzulpenak garrantzi handia izan du, eta, adibidez, Literatura Unibertsala bilduma arduratu da jardun horretaz. Hutsune horiek bete ondoren, badirudi argitaletxeak nazioartean arrakasta handia duten liburuak euskarara ekartzen ari direla gaur egun.

Edonola ere, argi ikusi dugu euskaratutako bestsellerren artean HGLa dela genero nagusia, eta, ondorioz, pentsa genezake literatur sistema hezkuntza sistemarekiko menpeko izan daitezkeela neurri batean. HGLaren eta HLaren arteko aldea oso nabarmena da, eta horrek esan nahi lezake helduentzako bestsellerra euskaratzea ez dela horren errentagarria, hau da, ez duela guztiz funtzionatzen.

Laburbilduz, eta oztopoak oztopo, badirudi bestseller fenomenoak iritsi dela ere euskal literatur sistemara, eta badirudi argitaletxeek mundu mailan entzute handia duten liburuak euskaratzeko apustua egin dutela. Ondorio hauetan aipatu dugunarekin bat, interesgarria izango litzateke etorkizunean aztertzea nolakoa den euskaratutako bestsellerren harrera eta, zehazki, zenbat irakurle dituzten liburu horiek.

7. BIBLIOGRAFIA

- ALDAZABAL GALLASTEGUI, AINHOA (2021). «Anormaltasuna», Argian.
<<https://www.argia.eus/argia-astekaria/2724/anormaltasuna>> [azken kontsulta: maiatzaren 12an]
- EIZAGIRRE GESALAGA, XABIER (2020). «Euskal liburugintza 2018», *Jakin aldizkaria*, 241: 97-120.
- ERREA, IMMA (2009). «Izua ikuskizun, etorkizun ilunean», *Diario de Noticias de Navarra*.
<<https://eizie.eus/eu/argitalpenak/azterketak-txostenak/itzulpena/lih2006-2010/jokoak.pdf>> [azken kontsulta: maiatzaren 12an]
- EUSKADIKO IRAKURKETA PUBLIKOKO SAREA, <https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop/O9612/ID17d8ae82?ACC=101> [Azken kontsulta: martxoaren 9an].
- FRESQUET ROSO, MARÍA (2016). *Estudio sobre el género, las funciones y la calidad literaria del best seller. Los best sellers híbridos en España y estudio comparativo con los autores más vendidos en Francia* [Doktorego tesia]. Barcelona: Universitat de Barcelona.
- GACON, ESTELLE (2017): *Literatura y mercado. El best seller en España*, [Doktorego tesia]. Valencia: Universitat de València.
- LIZARRALDE, MIKEL (2012). «Harry Potterren ondoren, bada», *Berria*.
<<https://www.berria.eus/paperekoa/1489/035/001/2012-12-21/harry-potterren-ondoren-bada.htm>> [azken kontsulta: maiatzaren 12an]
- LOPEZ GASENI, MANU. (2001). «Azken 25 urteotan euskaratutako Haur eta Gazte Literatura», *Behinola: haur eta gazte literatura aldizkaria*, 4: 31-37.
- LOPEZ GASENI, MANU. (2009). «Euskal itzulpenen inbentarioa eta azterketa (1976-2008)», *Senez: itzulpen aldizkaria*, 37, 299-311.
- NOR DA NOR DATU BASEA, <<http://nordanor.eus/?n=1>> [Azken kontsulta: martxoaren 9an].
- SATRUSTEGI ANDRÉS, IÑIGO (2020). «Euskal itzulpenen azterketa kuantitatiboa eta inbentarioa (2008-2018)», *Senez: itzulpen aldizkaria*, 51, 149-173.
- Sorensen, Alan (2007). «Bestseller Lists and Product Variety», *Journal of Industrial Economics*, 55, 715-738.

VENUTI, LAWRENCE (1995). *The Translator's Invisibility: A History of Translation*. Londres: Routledge.

VIÑAS PIQUER, DAVID (2009). *El enigma best-seller. Fenómenos extraños en el campo literario*. Barcelona: Ariel.

THE NEW YORK TIMES. *Best sellers*. <<https://www.nytimes.com/books/best-sellers/>> [azken kontsulta: martxoaren 9an]

THE NEW YORK TIMES. *About the Best Sellers*. <<https://www.nytimes.com/books/best-sellers/methodology/>> [azken kontsulta: maiatzaren 12an]

TORREALDAI, JOAN MARI. (1997): *Euskal Kultura Gaur. Liburuaren Mundua*. Donostia: Jakin.

I. ERANSKINA. EUSKARATUTAKO BESTSELLERREN KATALOGOA

Jatorrizkoa	Itzulpena	J. Egilea	Itzultzailea	H. Argitaletxea	Generoa	Bestsellerra izan zen data	J. Data	H. Data	Bilduma
A brief history of time	Denboraren historia laburra: big bang-etik zu	Stephen Hawking	Joan Ignazio Abriske	Gaiaki (Pentsamendu garaikidea)	Saiakera	07/01/1990	1988	1995	
A Short Story of Nearly Everything	la denaren historia labur bat	Bill Bryson	Ixiar Iza	Elhuyar	Saiakera	25/05/2003	2003	2009	
A thousand splendid suns	Mila eguzki eder	Khaled Hosseini	Josune Zuzuarregi	El anden	HL	10/07/2007	2007	2008	
Alice's adventures in Wonderland	Alizia herrialde harrigarrian	Lewis Carroll	Cruz Mujika Arbizu	Hordago; Lur	HGL	21/02/2010	1865	1979	
Alice's adventures in Wonderland	Aliziaren abenturak herrialde miresgarrian	Lewis Carroll	Manu López Gaseni	Pamiela (Mila gau)	HGL	21/02/2010	1865	2015	
Alice's adventures in Wonderland	Aliceren abenturak lurralde miresgarrian	Lewis Carroll	Manu López Gaseni	Pamiela (Tamaina Ttikia)	HGL	21/02/2010	1865	1989	
An Anthropolgologist on Mars	Antropólogo bat Marten	Oliver Sacks	Xabier Olarra	EHU (ZIO bilduma)	Saiakera	19/03/1995	1995	2003	
Atonement	Hobe-ordaina	Ian McEwan	Xabier Olarra	Igela	HL	31/03/2002	2001	2012	
Beloved	Maitea	Toni Morrison	Anton Garikano	Alberdania, Elkar (Literatura uniber)	HL	25/08/2019	1987	2004	
Catching fire	Dena sutan	Suzanne Collins	Koro Navarro	Alberdania; Erein	HGL	20/09/2009	2009	2010	Jarraipenekoak
Charlie and the chocolate factory	Charlie eta txokolata fabrika	Roald Dahl	Juan Mari Sarasola	Desclée de Brouwer	HGL	10/07/2005	1964	1989	
Coraline	Coraline	Neil Gaiman	Julen Gabiria	Elkar	HGL	21/07/2002	2002	2019	
Couleurs	Koloreak	Hervé Tullet	Aztiri itzulpen zerbit	Ttarttalo	HGL	05/10/2014	2014	2015	Jarraipenik gabekoa
Dad by my Side	Aitarekin nagoenean	Soosh	Arrate Hidalgo	Minis	HGL	01/07/2018	2018	2019	
Diary of a Wimpy Kid	Gizajo baten egunkaria	Jeff Kinney	Miren Arratibel	Alberdania (Greg Hefferyren egune)	HGL	08/06/2008	2007	2010	Jarraipenik gabekoa
Diary of a Wimpy Kid : Cabin Fever	Gizajo baten egunkaria: Etxean itxia	Jeff Kinney	Aritz Branton de Lar	Alberdania (Greg Hefferyren egune)	HGL		2011	2016	Jarraipenik gabekoa
Diary of a Wimpy Kid : Dog Days	Gizajo baten egunkaria : Egun zakurrak	Jeff Kinney	Miren Arratibel	Alberdania (Greg Hefferyren egune)	HGL		2009	2012	Jarraipenik gabekoa
Diary of a Wimpy Kid : Double Down	Gizajo baten egunkaria : Dena ala ezer ez	Jeff Kinney	Antton Olano	Alberdania (Greg Hefferyren egune)	HGL		2016	2019	Jarraipenik gabekoa
Diary of a Wimpy Kid : Hard Luck	Gizajo baten egunkaria : Suerte txarra	Jeff Kinney	Miren Arratibel	Alberdania (Greg Hefferyren egune)	HGL		2013	2017	Jarraipenik gabekoa
Diary of a Wimpy Kid : Old School	Gizajo baten egunkaria : Eskola zaharra	Jeff Kinney	Miren Arratibel	Alberdania (Greg Hefferyren egune)	HGL		2015	2018	Jarraipenik gabekoa
Diary of a Wimpy Kid : Rodrick Rules	Gizajo baten egunkaria : Rodrick-en legea	Jeff Kinney	Miren Arratibel	Alberdania (Greg Hefferyren egune)	HGL		2008	2011	Jarraipenik gabekoa
Diary of a Wimpy Kid : The Getaway	Gizajo baten egunkaria : lhesaldia	Jeff Kinney	Miren Arratibel	Alberdania (Greg Hefferyren egune)	HGL		2017	2020	Jarraipenik gabekoa
Diary of a Wimpy Kid : The Last Straw	Gizajo baten egunkaria : Hauxe besterik ez n	Jeff Kinney	Miren Arratibel	Alberdania (Greg Hefferyren egune)	HGL		2009	2012	Jarraipenik gabekoa
Diary of a Wimpy Kid : The Long Haul	Gizajo baten egunkaria : Txango zoroa	Jeff Kinney	Miren Arratibel	Alberdania (Greg Hefferyren egune)	HGL		2014	2017	Jarraipenik gabekoa
Diary of a Wimpy Kid : The Third Wheel	Gizajo baten egunkaria : Bikotean Hiru	Jeff Kinney	Miren Arratibel	Alberdania (Greg Hefferyren egune)	HGL		2012	2016	Jarraipenik gabekoa
Diary of a Wimpy Kid : The Ugly Truth	Gizajo baten egunkaria : Egia gordina	Jeff Kinney	Aritz Branton de Lar	Alberdania (Greg Hefferyren egune)	HGL		2010	2014	Jarraipenik gabekoa
Diary of an Awesome Friendly Kid	Rowley naiz. Mutiko superjatorra: eta hau d	Jeff Kinney	Miren Arratibel	Alberdania	HGL	05/01/2019	2019	2019	Jarraipenik gabekoa
Dream big little pig!	Izan amets handi Lili txiki!	Kristi Yamaguchi	Itziar Zabala	Gero, Mensajero	HGL	03/04/2011	2011	2012	
El general en su laberinto	Jenerala bere laberintoan	G. García Márquez	Xabier Mendiguren	Elkar	HL	06/01/1991	1989	1990	
El príncipe de la niebla	Langre arteko printzea	Carlos Ruiz Zafón	Fautxin Urrutibeask	Edebé-Giltza	HGL	23/05/2010	1993	1997	
Eragon	Eragon	Christopher Paolini	Fernando Morillo	Elkar	HGL	14/09/2003	2002	2006	
Harry Potter and the chamber of secrets	Harry Potter eta sekretuen ganbera	J.K. Rowling	Iñaki Mendiguren	Elkarlanean; Salamandra	HGL	20/06/1999	1998	2001	Jarraipenekoak
Harry Potter and the deathly hallows	Harry Potter eta herioaren erlikiak	J.K. Rowling	Iñaki Mendiguren	Elkarlanean; Salamandra	HGL		2007	2008	Jarraipenekoak
Harry Potter and the goblet of fire	Harry Potter eta suaren kopa	J.K. Rowling	Iñaki Mendiguren	Elkarlanean; Salamandra	HGL	23/07/2000	2000	2002	Jarraipenekoak
Harry Potter and the Half-Blood Prince	Harry Potter eta Odol Nahasiko Printzea	J.K. Rowling	Iñaki Mendiguren	Elkarlanean; Salamandra	HGL		2005	2007	Jarraipenekoak
Harry Potter and the Order of the Phoenix	Harry Potter eta Fenixaren Ordena	J.K. Rowling	Iñaki Mendiguren	Elkarlanean; Salamandra	HGL	13/07/2003	2003	2004	Jarraipenekoak
Harry Potter and the Philosopher's Stone	Harry Potter eta sorgin harria	J.K. Rowling	Iñaki Mendiguren	Elkarlanean; Salamandra	HGL	27/12/1998	1997	2000	Jarraipenekoak
Harry Potter and the Prisoner of Azkaban	Harry Potter eta Azkabango presoak	J.K. Rowling	Iñaki Mendiguren	Elkarlanean; Salamandra	HGL	26/09/1999	1999	2001	Jarraipenekoak
Here we are: Notes for Living on Planet Earth	Hona gu hemen: Lur planetan bizitzeko ohar	Oliver Jeffers	Garazi Arrula	Txalaparta; OQO (TXOI bilduma)	HGL	03/12/2017	2017	2020	
Herr der diebe	Lapurren burua	Cornelia Funke	Pedro Martin Zabak	Elkar	HGL	22/09/2002	2000	2004	
Het Achterhuis	Anne Franken egunkaria	Anne Frank	Josu Zabaleta	Erein	HL	02/04/1995	1959	2004	
Hey Grandude!	Aitonaren iparrorrazt magikoa	Paul McCartney	Amets Santxex Mun	Bruño	HGL	22/09/2019	2019	2020	
How I Became a Pirate	Pirata izan nintzenekoak	Melinda Long	Manu López Gaseni	Vicens Vives	HGL	28/09/2003	2003	2013	
Indignation	Suminez	Phillip Roth	Nagore Tolosa	Meettok	HL	05/10/2008	2008	2009	
Is there really a human race?	Hau al da benetako giza bidea?	Jamie Lee Curtis	Inazio Mujika Iraola	Alberdania	HGL	22/10/2006	2006	2007	
Judy Moody around the world 8½ days	Judy Moody munduari itzulia zortzi egun eta	Megan McDonald	Koldo Biguri	Gero, Mensajero	HGL		2006	2007	Jarraipenik gabekoa
Judy Moody Declares Independence	Judy Moody bere buruaren jabe	Megan McDonald	Koldo Biguri	Gero, Mensajero	HGL		2005	2007	Jarraipenik gabekoa
Judy Moody Gets Famous!	Judy Moody ospetsua egiten da!	Megan McDonald	Koldo Biguri	Gero, Mensajero	HGL		2001	2006	Jarraipenik gabekoa
Judy Moody Goes to College	Judy Moody unibertsitatera doa	Megan McDonald	Koldo Biguri	Gero, Mensajero	HGL		2008	2009	Jarraipenik gabekoa
Judy Moody Predicts the Future	Judy Moody etorkizun igarlea	Megan McDonald	Koldo Biguri	Gero, Mensajero	HGL		2003	2008	Jarraipenik gabekoa
Judy Moody Saves the World!	Judy Moody lurrraren salbatzailea	Megan McDonald	Koldo Biguri	Gero, Mensajero	HGL		2002	2006	Jarraipenik gabekoa
Judy Moody was in a mood	Judy Moody oso umore txarrez dago, oso-os	Megan McDonald	Koldo Biguri	Gero, Mensajero	HGL		2000	2006	Jarraipenik gabekoa

Judy Moody, M.D. The Doctor Is In	Judy Moody medikua da!	Megan McDonald	Koldo Biguri	Gero, Mensajero	HGL		2004	2008	Jarraipenik gabekoa
Junie B. and the Yucky Blucky Fruitcake	Junie B. Jones eta fruta-pastel nazkagarria	Barbara Park	Ametz Santxez Mun Bruño		HGL		1995	2014	Jarraipenik gabekoa
Junie B. Jones and a Little Monkey Business	Junie B. Jones eta anaiatxo moñoñoa	Barbara Park	Ametz Santxez Mun Bruño		HGL		1993	2012	Jarraipenik gabekoa
Junie B. Jones and Her Big Fat Mouth	Junie B. Jones, ahoberoa	Barbara Park	Ametz Santxez Mun Bruño		HGL		1993	2013	Jarraipenik gabekoa
Junie B. Jones and Some Sneaky Peeky Spyi	Junie B. Jones, zelatari	Barbara Park	Ametz Santxez Mun Bruño		HGL		1994	2014	Jarraipenik gabekoa
Junie B. Jones and that Meanie Jim's birthd	Junie B. Jones eta Jim gaiztoaren urtebetetz	Barbara Park	Ametz Santxez Mun Bruño		HGL		1996	2016	Jarraipenik gabekoa
Junie B. Jones and the Mushy Gushy Valent	Junie B. Jones eta miresle sekretua	Barbara Park	Ametz Santxez Mun Bruño		HGL		1999	2013	Jarraipenik gabekoa
Junie B. Jones and the Stupid Smelly Bus	Junie B. Jones eta autobus kirasduna	Barbara Park	Ametz Santxez Mun Bruño		HGL		1992	2012	Jarraipenik gabekoa
Junie B. Jones has a Monster Under Her bed	Junie B. Jones eta ohe azpiko munstroa	Barbara Park	Ametz Santxez Mun Bruño		HGL		1997	2013	Jarraipenik gabekoa
Junie B. Jones has a peep in her pocket	Junie B. Jones abeletxean	Barbara Park	Ametz Santxez Mun Bruño		HGL		2000	2016	Jarraipenik gabekoa
Junie B. Jones Is (almost) a Flower Girl	Junie B. Jones, ohorezko dama izango da (ag	Barbara Park	Ametz Santxez Mun Bruño		HGL		1999	2013	Jarraipenik gabekoa
Junie B. Jones Is a Beauty Shop Guy	Junie B. Jones, ile-apaintzaile	Barbara Park	Ametz Santxez Mun Bruño		HGL		1998	2014	Jarraipenik gabekoa
Junie B. Jones is a Graduation Girl	Junie B. Jones eta urte amaierako festa	Barbara Park	Ametz Santxez Mun Bruño		HGL	03/06/2001	2001	2017	Jarraipenik gabekoa
Junie B. Jones Is a Party Animal	Junie B. Jones eta pijama-festa	Barbara Park	Ametz Santxez Mun Bruño		HGL		1997	2014	Jarraipenik gabekoa
Junie B. Jones Is Not a Crook	Junie B. Jones, ez da lapurra	Barbara Park	Ametz Santxez Mun Bruño		HGL		1997	2013	Jarraipenik gabekoa
Junie B. Jones Loves Handsome Warren	Junie B. Jones eta Warren ederra	Barbara Park	Ametz Santxez Mun Bruño		HGL		1996	2012	Jarraipenik gabekoa
Junie B. Jones smells something fishy	Junie B. Jones maskota bila	Barbara Park	Ametz Santxez Mun Bruño		HGL		1998	2015	Jarraipenik gabekoa
Junie B. Jones, Is Captain Field Day	Junie B. Jones, ikasgelako kapitain	Barbara Park	Ametz Santxez Mun Bruño		HGL		2001	2013	Jarraipenik gabekoa
Junie B., first grader (at last)	Junie B. Jones lehen mailan (azkenean)	Barbara Park	Ametz Santxez Mun Bruño		HGL		2001	2017	Jarraipenik gabekoa
L'amica geniale	Adiskide paregabea	Elena Ferrante	Fernando Rey	Igela (Mintaka bilduma)	HL	20/09/2015	2011	2015	Jarraipenik gabekoa
Le journal de Zlata	Zlataren egunkaria	Zlata Filipovic	Koldo Biguri	Desclée de Brouwer	HGL	20/03/1994	1993	1994	
Le Petit Prince	Printze txikia	Antoine de Saint-Exupéry	Patxi Zubizarreta	Elkarlanean; Salamandra	HGL	23/07/2000	1951	2001	
Le Petit Prince	Printzipito	Antoine de Saint-Exupéry	Benito Otazua	Errekaldeko Lagun Arte Kultur Talde	HGL	23/07/2000	1951	1998	
Le Petit Prince	Printze txikia	Antoine de Saint-Exupéry	Xalbador	Garmendi; Plan	HGL	23/07/2000	1951	1970	
Le Petit Prince	Printze txikia	Antoine de Saint-Exupéry	Iraitze	Urkulo	HGL	23/07/2000	1951	2014	
Le Petit Prince	Printze txikia	Antoine de Saint-Exupéry	Iñaki Sipiri	Txertoa	HGL	23/07/2000	1951	1985	
Long Walk to Freedom	Urte ilunak (jatorrizkoaren atal bat)	Nelson Mandela	Ekaitz Sirvent	Ataramiñe	HL	22/01/1995	1994	2013	
Longitude	Longituda	Dava Sobel	Irene Aldasoro	EHU (ZIO bilduma)	Saiakera	31/12/1995	1995	2012	
Mockingjay	Eskinoso isekaria	Suzanne Collins	Koro Navarro	Alberdania; Erein	HGL	12/09/2010	2010	2011	Jarraipenik gabekoa
Molly Moon stops the world	Molly Moonek mundua geldiarazten du	Georgia Byng	Jesus Mari Lasa	Erein	HGL		2003	2009	Jarraipenik gabekoa
Molly Moon's Incredible Book of Hypnotism	Molly Moon eta hipnotismoko liburu miraga	Georgia Byng	Jesus Mari Lasa	Erein	HGL	09/05/2004	2004	2006	Jarraipenik gabekoa
Monster high	Monster high	Lisi Harrison	Itziar Zabala	Gero, Mensajero	HGL	19/09/2010	2010	2010	
My dad	Nire aita	Anthony Browne	Ane Erroteta	Hiria (Haurren aurrenak bilduma)	HGL	01/07/2001	2000	2005	
Normal People	Jende normala	Sally Rooney	Irene Aldasoro	Alberdania	HL	05/05/2019	2018	2020	
Not a box	Ez da kaxa bat	Antoinette Portis	Eva Linazasoro	Pamiela; Pontevedra; Kalandraka	HGL	15/04/2007	2006	2017	
Olivia	Olivia	Ian Falconer	Ane Erroteta	Hiria (Haurren aurrenak bilduma)	HGL	22/10/2000	2000	2004	Jarraipenik gabekoa
Olivia saves the circus	Olivia bere zirkoan	Ian Falconer	Ane Erroteta	Hiria (Haurren aurrenak bilduma)	HGL	14/10/2001	1994	2004	Jarraipenik gabekoa
On joue?	Jolastuko al gara?	Hervé Tullet	Aztiri itzulpen zerbit	Ttarrtalo	HGL	17/04/2016	2011	2016	Jarraipenik gabekoa
Peter Pan in Scarlet	Peter Pan eta jaka eskarlata	Geraldine McCaughrean	Xabier Paya	Zubia	HGL	22/10/2006	2006	2006	
Playing in the Dark	Gaueko hitzak	Toni Morrison	Itziar Iriondo	Erein	HL	17/05/1992	1992	1995	
Reckless-Steinernes Fleisch	Reckless - Harrizko haragia	Cornelia Funke	Aiora Jaka	Elkar	HGL	oct-10	2010	2010	
Rowley Jefferson's Awesome Friendly Adventure	Rowley Jefferson superjatorraren abentura	Jeff Kinney	Miren Arratibel	Alberdania	HGL		2020	2020	Jarraipenik gabekoa
Sapiens : A Brief History of Humankind	Sapiens: gizadiaren historia labor bat	Yuval Noah Harari	Xabier Kintana; And Elkar		Saiakera	01/03/2015	2011	2019	
Shit My Dad Says	Aitaren pitokeriak	Justin Halpern	Uxue Alberdi	Alberdania	HL	23/05/2010	2010	2011	
Spells	Xarmak	Aprilynne Pike	Koldo Biguri	Gero, Mensajero	HGL	23/05/2010	2010	2011	Jarraipenik gabekoa
Storia del nuovo cognome	Abizen berriaren historia	Elena Ferrante	Fernando Rey	Igela (Mintaka bilduma)	HL	27/12/2015	2012	2016	Jarraipenik gabekoa
Storia della bambina perduta	Ume galduaren historia	Elena Ferrante	Fernando Rey	Igela (Mintaka bilduma)	HL	20/09/2015	2014	2016	Jarraipenik gabekoa
Suite française	Suite frantsesa	Irène Némirovsky	Mikel Garmendia, Jr	Alberdania	HL	30/04/2006	2004	2011	
Ten Little fingers and ten Little toes	Hamar hatz ttipi eta hamar behatz ttipi	Mem Fox	Eva Linazasoro	Pamiela; Pontevedra; Kalandraka	HGL	21/09/2008	2008	2018	
The alchemist	Alkimista	Paulo Coelho	Xabier Aranburu	Txalaparta (Amaiur)	HL	07/10/2007	1988	2001	
The artist who painted a blue horse	Zaldi urdin bat margotu zuen artista	Eric Carle	Manu López Gaseni	Pamiela; Kalandraka	HGL	23/10/2011	2011	2012	
The battle of the labyrinth	Labirintoko borroka	Rick Riordan	Mari Eli Ituarte; Itzi	Gero, Mensajero (Percy Jackson)	HGL		2008	2015	Jarraipenik gabekoa
The boy in the striped pyjamas	Pijama marradunaz jantzitako mutikoa	John Boyne	Mirentxu Larrañaga	Alberdania	HL	23/11/2008	2006	2006	

The casual vacancy	Eserleku hutsa	J.K. Rowling	Estibaliz Lizaso	Alberdania	HL	14/10/2012	2012	2012
The curious garden	Lorategi bizia	Peter Brown	Ihintza Elseenar	Ttarttalo	HGL	03/05/2009	2009	2013
The Curious Incident of the Dog in the Nigh	Txakurrari gauean gertatutako istripu bitxia	Mark Haddon	Xabier Olarra	Igela	HL	17/08/2003	2003	2006
The Fault in Our Stars	Izarrak errudun	John Green	Usoa Wyssenbach	Alai (Ganbara)	HGL	29/01/2012	2012	2018
The giver	Oroimen Emailea	Lois Lowry	Mari Jose Kerejeta	Aizkorri	HGL	21/10/2012	1993	2001
The Handmaid's Tale	Neskamearen ipuina	Margaret Atwood	Zigor Garro	Txalaparta (Gebara)	HL	26/02/2017	1985	2020
The Hunger Games	Gose jokoak	Suzanne Collins	Koro Navarro	Alberdania; Erein	HGL	28/09/2008	2008	2009 Jarraipeneko
The Kite Runner	Kometa ehiztaria	Khaled Hosseini	Josune Zuzuarregi	Nasa	HL	14/09/2014	2003	2008
The last olympian	Olinpoko azken heroia	Rick Riordan	Mari Eli Ituarte; Itzi	Gero, Mensajero (Percy Jackson)	HGL		2009	2016 Jarraipeneko
The lightning thief	Tximistaren lapurra	Rick Riordan	Koro Navarro	Gero, Mensajero (Percy Jackson)	HGL	09/06/2008	2005	2013 Jarraipeneko
The Perks of Being a Wallflower	Bazterrekoa izatearen alde onak	Stephen Chbosky	Alex Aldekoa-Otalor	Alai (Ganbara)	HGL	24/06/2012	1999	2020
The red pyramid	Piramide gorria	Rick Riordan	Koro Navarro	Gero, Mensajero (Kanetarren kron	HGL	23/05/2010	2010	2011 Jarraipeneko
The Sea of Monsters	Munstroen itsasoa	Rick Riordan	Koro Navarro	Gero, Mensajero (Percy Jackson)	HGL		2006	2013 Jarraipeneko
The serpen's shadow	Sugearen itzala	Rick Riordan	Koro Navarro	Gero, Mensajero (Kanetarren kron	HGL	20/05/2012	2012	2013 Jarraipeneko
The Tattooist of Auschwitz	Auschwitzeko tatuatzailea	Heather Morris	Miel Angel Elustond	Alberdania	HGL	23/09/2018	2018	2019
The Throne of Fire	Suzko tronua	Rick Riordan	Koro Navarro	Gero, Mensajero (Kanetarren kron	HGL	22/05/2011	2011	2012 Jarraipeneko
The tiger's wife	Tigrearen emaztea	Tea Obrecht	Miren Arratibel	Erein	HL	27/03/2011	2011	2012
The Titan's curse	Titanaren maldizioa	Rick Riordan	Koro Navarro	Gero, Mensajero (Percy Jackson)	HGL		2007	2014 Jarraipeneko
The very hungry caterpillar	Beldar gosetia	Eric Carle	Xan Arrotabehe	Ikas	HGL	05/04/2009	1969	2006
The very hungry caterpillar	Beldar txiki jatuna	Eric Carle	Miren Agur Meabe	Kókinos	HGL	05/04/2009	1969	2011
The very hungry caterpillar	Gose handiko beldarra	Eric Carle	Koldo Izagirre	Pamiela, Kalandraka	HGL	05/04/2009	1969	2007
The Wolves in the Walls	Otoak hormetan	Neil Gaiman	Joxe Rojas	Astiberri	HGL	24/08/2003	2003	2004
The Wonderful Wizard of Oz	Oz-eko azti harrigarria	L. Frank Baum	Juan Kruz Igerabide	Denonartean	HGL	03/12/2000	1900	2015
The Wonderful Wizard of Oz	Oz-ko magoa	L. Frank Baum	Juan Mari Arzallus	Hordago; Lur	HGL	03/12/2000	1900	1981
Tintnerherz	Tinta-bihotz	Cornelia Funke	Narao Zubillaga	Elkar	HGL	26/10/2003	2003	2009
Turtles all the way down	Kiribil amaigabea	John Green	Usoa Wyssenbach	Alai (Ganbara)	HGL	29/10/2017	2017	2019
Un livre	Liburu bat	Hervé Tullet	Aztiri itzulpen zerbit	Ttarttalo	HGL	08/05/2011	2010	2012 Jarraipenik gabekoa
War Horse	Gerrako zaldia	Michael Morpurgo	Koro Navarro	Alberdania; Erein	HGL	27/11/2011	1982	2012
We should all be feminists	Guztiok izan beharko genuke feminista	Chimamanda Ngozi Adic	Kulturgintza (AEK)	Xangorin-Hik Hasi	Saiakera	20/12/2015	2014	2017
What we'll Build	Badugu zer eraiki	Oliver Jeffers	Garazi Arrula	Txalaparta; OQO (TXO! bilduma)	HGL	25/10/2020	2020	2020
Wings	Hegoak	Aprilynne Pike	Koldo Biguri	Gero, Mensajero	HGL	24/05/2009	2009	2010 Jarraipeneko
Wonder	Wonder, mutiko miragarria	R. J. Palacio	Jone Hualde	Denonartean	HGL	18/03/2012	2012	2019
Wonderful Life: The Burgess Shale and the	Bai bizi zoragarria!: Burgess Shale eta histori	Stephen Jay Gould	Jose Ramon Etxebar	Gaiak (Pentsamendu garaikidea)	Saiakera	14/01/1990	1989	2000
Zero K	Zero K	Don DeLillo	Aritz Gorrotxategi	Meettok	HL	22/05/2016	2016	2016